



ALEX TXIKON HISTORIAN LEHEN ALDIZ MANASLUKO GAILURRERA HELDU DA NEGUKO ESPEDIZIO BATEAN

- “Hirugarrenean lortu dugu. Oso nekatuta gaude, baina guztiz hunkituta. Hala ere, benetako gailurra denok onik behera itzultzen garenean lortuko dugu” azaldu du Txikonek

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 06an.- Hirugarrenean lortu du. Alex Txikonek Manaslu (itsas mailatik 8.163ra) igo du, historian lehen aldiz, neguko espedizio batean. Estrategia aldaketa, lehen aukera izan ahala gailurrari eraso ahal izateko hilabeteko egokitzapena izatea, eta eguraldi ona funtsezkoak izan dira helburua lortu ahal izateko. “Oso nekatuta gaude, baina guztiz hunkituta. Orain pixkanaka-pixkanaka jaitsi eta denak onik iritsi behar gara. Une horretan lortuko baitugu, hain zuzen ere, benetako gailurra” azaldu du alpinista euskaldunak.

Alex Txikonek zuzendutako taldeak modu desberdinean bideratu du aurtengo erronka. Lehen bi saiakeretan ikasitakoari esker erabaki zuten aurkezten zitzaien lehen aukerarako prest egon behar zutela. Hori dela eta, Alex Txikon Himalayako beste proiektu batzuetan murgilduta egon da, egokitzapen egoki bat izatea ahalbidetu diotenak. Abenduaren 26an iritsi zen Manasluko Oinarrizko Kanpalekura eta, jada, prest zegoen, bere aukeraren zain.

Oinarrizko Kanpamentua 5.000 metroko altueran ezarri zuten. Eguraldiaren iragarpenak aztertu eta egiaztatu zuten urteko azken egunetan haizeak gogor joko zuela, baina pixkanaka eguraldia egonkortzen hasiko zela. “Hauxe zen espero genuen aukera” adierazi zuen jada erronkarako prest zegoen Txikonek. Urtarrilaren 4an motxila eta beharrezko materiala hartu eta zuzenean igo ziren bigarren kanpalekura (6.400 metrora ezarri zuten). “1.500 metro inguruko desnibela egin dugu. Ibilbidea oso gogorra izan da haizeagatik eta ekartzen genuen material guztiagatik” esan zuen alpinista euskaldunak.

Bigarren kanpalekuan atsedean hartu zuten eta urtarrilaren 5ean igo ziren hirugarren kanpalekura (7.000 metrotik behera). Bertan igaro zuten gaua, jarraitu beharrezko estrategia aztertuz. “Aukera hau aprobe txatu behar dugu. Eguraldia ona da eta gure aukera izan daiteke. Bihar goizaldean gailurrera irtengo gara. Ea zer aurkitzen dugun” azaldu zuen erronkari aurre egin aurretik.

Eta urtarrilaren 6an Errege Magoek oparirik onena ekarri zioten: eguraldi ona eta duela 3 urtetik espero zuen aukera. Bere kordada lagun Pasang Nurbu Sherpa, Chhapel Sherpa, Gelu Sherpa,





Maila Sherpa, Mantere Lama Sherpa eta Gamje Babu Sherparekin batera gailurrerantz abiatu zen eta urrezko letrekin idatzi zuten historia: 9:30etan (tokiko ordua) munduko zortzigarren mendi altuenera igotzea lortu zuten, oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe eta negu betean. Inoiz lortu gabeko balentria.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK:

BIOK COMUNICACIÓN ESTRATÉGICA

Naroa Hernansanz // naroa@biokcomunicacion.com // 687 13 94 09

MATERIAL GRAFIKOA

<https://prensa.alexixikon.com/>

Erabiltzailea: prensa2021

Pasahitza: txikonmanaslu2022*

